

**ZERBITZU ZUZENDARITZAREN TXOSTEN JURIDIKOA, EUSKADIKO KOOPERATIBEN LEGE-PROIEKTUARI BURUZKOA****1.- AURREKARIAK**

Euskadiko kooperatiben lege-proiektua jaso dugu Zerbitzu Zuzendaritzan, dagokion txosten juridikoa egiteko, gero izapidetzeko, Gobernu Kontseiluak onets dezan.

Txosten hau Xedapen Orokorrak egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 7.3 artikuluari jarraituz egin da. Lege horren arabera, prozedura bideratu duen sailaren Zerbitzu Juridikoaren txostenean, lege-proiektuaren funts objektiboa aztertuko da, bai eta edukia Legearekin eta Zuzenbidearekin bat datorren eta lege-proiektuak araugintza-teknikari buruzko jarraibideak betetzen dituen ere. Halaber, apirilaren 9ko 191/2013 Dekretuak, Justizia eta Herri Administrazio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituenak, 8. artikuluan jasotako xedapenen arabera egin da.

**2.- PROIEKTUAREN EDUKIARI BURUZKO OHARPENAK****2.1.- ARAU-ESPARRUA**

Aplikatu beharreko araudiari dagokionez, aztertutako proiektuari bereziki aplikatu behar zaizkio honako arau hauek:

- 20/2012 Dekretua, abenduaren 15ekoa, Lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioari sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen (20/2012 Dekretua):
- 191/2013 Dekretua, apirilaren 9koa, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena (191/2013 Dekretua).
- 8/2003 Legea, abenduaren 22koa, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurarena (XOEPL).
- Lehendakaritza, Lege Araubide eta Autonomi Garapenerako sailburuaren 1993ko apirilaren 6ko Agindua; xedapen horrek agintzen du argitara dadila Jaurlaritzaren Kontseiluak 1993ko martxoaren 23an egin zuen bilkuran onartu eta Lege Egitasmoak, Dekretuak, Aginduak eta Erabakiak lantzeko jokabideak onartzen direneko Akordioa (1993ko apirilaren 6ko Agindua).
- Xedapen Orokorrak Izapidetzeko Jarraibideak onartzen dituen 2010eko abenduaren 28ko Gobernu Kontseiluaren Erabakia.
- 4/1993 Legea, ekainaren 24koa, Euskadiko Kooperatibena (4/1993 Legea).
- 58/2005 Dekretua, martxoaren 29koa, Euskadiko Kooperatiben Legearen Erregelamendua onartzen duena.

- 1/2010 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 2koa, Kapital Sozietateei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena (Kapital Sozietateei buruzko Legea).
- 22/2003 Legea, uztailaren 9koa, Konkurtsoei buruzkoa.
- 433/2013 Dekretua, urriaren 29koa, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearena (433/2013 Dekretua).
- 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duena (Sektore Publikoko Kontratuen Legea).
- 11/2007 Legea, ekainaren 22koa, Herritarrek Zerbitzu Publikoetan Sarbide Elektronikoa izateari buruzkoa (11/2007 Legea).

## **2.2.- ESKUMENA**

3/1979 Lege Organikoak, abenduaren 18koak, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuarenak, 10.23 artikuluan xedatutakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa du kooperatiben, Gizarte-segurantzian sartu gabeko lagunaroen eta elkarlaguntzako elkarteen arloan, merkataritza-arloko legeria orokorrarekin bat.

Bestalde, 20/2012 Dekretuan ezarritakoari jarraituz, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren eginkizunen eta jarduera-arloen artean daude gizarte-ekonomia eta kooperatibak.

Amaitzeko, 191/2013 Dekretuaren arabera, Gizarte Ekonomiako Zuzendaritzari dagokio sailburuari proposamenak egitea, ekainaren 24ko 4/1993 Legea, Euskadiko Kooperatibena, aldatzeko, sektorearen funtzionamendu hobea bideratzeko.

## **2.3.- PROIEKTUAREN AZTERKETA**

### **2.3.1. 1993KO APIRILAREN 6KO AGINDUA**

Txosten honen egilearen iritziz, proiektuak 1993ko apirilaren 6ko Aginduan jasota dauden jarraibideen arabera izan beharko du. Agindu horretan honako xedapen hauek jasota daude:

- Izenburuak jaso beharko du lege-proiektua dela, arautzen den gaia adierazi beharko du, eta koma izango du dataren aurretik.
- Artikuluak laburrak izan behar dute; hiru edo lau paragrafo izango dituzte gehienera. Zenbaki arabiarrik jarriko zaizkie paragrafoei. Bakarra baldin bada, ez zaio jarriko. Gaiaren konplexutasuna dela medio, labur ematea ezinezkoa denean, esaldi bakar batez osatutako atal luzerik ez da sartuko. Kasu horietan, ideia nagusia, lehenengo lerroaldean jasoko da, eta zehaztasunak hurrengoetan. Laburbilduz: atal bakoitzak, gai

bakarra; paragrafo bakoitzak, perpausa bakarra; perpausa bakoitzak, ideia bakarra.

### 2.3.2. ARTIKULUAK

Oro har, artikulua guztiei dagokienez, esan behar dugu egoki dela hizkera berrikustea, genero-ikuspegitik hizkuntza inklusiboaren erabilera bultzatzeko.

Proiektua honela egituratuta dago: azalpen-zatia; 154 artikuluk osatutako xedapen-zatia; eta amaierako zatia, bi xedapen gehigarri, bi xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta bost azken-xedapen dituena.

Proiektuak, oro har, eusten die ekainaren 24ko 4/1993 Legea, Euskadiko Kooperatibena, osatzen duten artikulua gehienei. Horregatik, txosten honetan kontuan hartuko ditugu soil-soilik indarrean dagoen testua aldatzeko egin diren proposamenak. Hala ere, berariaz aipatuko ditugu zenbait artikulua, aldatu ez badira ere egokitu behar direnak, aldatu diren artikuluekin bat etortzeko.

Txostena egiteko aztertu dugun testuak berrikuntza hauek sartu ditu, indarrean dagoen Legearekin alderatuta:

- Proiektuaren testu guztian ikusten diren berrikuntzei dagokienez, aipatzekoak dira honako hauek: (1) epaitegi eskudunen gaurkotzea, (2) terminologiaren gaurkotzea, konkurtso-legediaren arabera egokitzeko, (3) “nahitaezko gizarte-funtsak” aipatu ordez, “nahitaezko erreserba-funtsa” eta “kooperatiba-heziketa eta -sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ekarpena” aipatzen dira (4) “nekazaritzako kooperatibak” aipatu ordez “nekazaritzako elikagaien kooperatibak” aipatzen dira, (5) Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailaren ordez enpleguaren alorreko eskumenak dituen saila aipatzen da, eta Lan eta Gizarte Segurantzaren Ministerioaren ordez, berriz, Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioa.
- I. kapituluan, xedapen orokorrei buruzkoan, sartutako berrikuntzei dagokienez, nabarmendu behar da Nazioarteko Kooperatiba Aliantzaren printzipioak berariaz aipatzen direla, kooperatiba-jarduerak hirugarrenekin egiteko beharrezkotasun-betekizuna kendu dela, eta berariaz arautzen direla estatutuaren definitu behar diren atalei buruzko edukiak, izan ere, ia hitzez hitz jasotzen da 58/2005 Dekretuko 20. artikulua gai horri buruz adierazten duena.
- II. kapituluan, kooperatiba eratzeari buruzkoan, ez da aldaketarik sartu, lehenengo paragrafoan adierazitakoaren arabera artikulua guztietan eragina dutenak izan ezik.
- III. kapituluan, aldiz, hirugarrenen aurrean garrantzi handia duen berrikuntza bat sartu da: zehazten da zer data hartu behar den kontuan erregistroko inskripzioaren datatzat, inskripzio hori eratzekoa izanez gero (ez da beti hala izaten), eta kasu horietan aurkeztutako eguna kontuan hartzea xedatu da. Lege-irizpide horren oinarriak espedienteari dagokion memorian jasota daude: kooperatibari data kontrolatzeko aukera eman behar zaio, kontabilitatearen eta zergen alorrean, besteak beste, izan ditzaken ondorioak aintzat hartuta.

- Gainera, 16. artikulua Kooperatiben Erregistroaren betebeharrak jasotzen du: herritarrekiko harremanetan bitarteko elektronikoa, informatikoa eta telematikoa bultzatzea, 11/2007 legean xedatuta dagoenari jarraituz.
- VI. kapituluaren, bazkideei buruzkoan, lau taldetan banatzen dira bazkideak, sailkapen orokor baten arabera, 58/2005 Dekretuan ezarritako arauetaren ildotik.
- Halaber, proiektuko 22.c artikulua bigarren paragrafoak jasotzen du 85/2005 Dekretuaren 1. artikuluan xedatuta dagoena, berrikuntza honekin: Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak bere gain hartu dituen ikuskapen-eginkizunak egikaritzen egindako alde aurreko baimena behar da. Kooperatibak ikuskatzeko eginkizunei dagokienez, txosten honetan aurrerago jasoko denari lotzen natzaio.
- Kapitulu honetan sartu diren berrikuntzekin jarraituz, 24.4 artikulua edukia da 55.2 artikuluan Zaintza Batzordearen eskumenei buruz jasotako eduki berriaren arabera. Gainera, 26. artikuluan, borondatez kooperatiba uzteari buruzkoan, beste paragrafo bat sartu da; zazpigarrena, hain zuzen, kooperatiba uzten duen bazkidearen eskubideak mugatzen dituena. Amaitzeko, 30.4 artikuluan xedatzen da eszedentzian dagoen bazkidearen figura (alegia, aldi batez jarduerari utzi diona) estatutuaren arautzeko aukera.
- V. kapituluaren, kooperatibako organoari buruzkoan, honako hau ageri da: organo bakoitza berriaz arautu aurretik, beste artikulua bat sartu da. Artikulu berri horrek organoen zerrenda ematen du, eta bi motatakoak bereizten ditu. Alde batetik, ezinbestekoak direnak: Batzar Nagusia eta Administrazio Organoa. Bestetik, kooperatibaren estatutuaren hautaz kontuan har daitezkeenak: Zaintza Batzordea, Gizarte Kontseilua eta Errekurtso Batzordea; nolahi ere, beste organo batzuk ezar daitezke estatutuaren, baina ezingo dituzte inolahi ere beren gain hartu aurrekoiei esleitutako eskumenak.
- Batzar Nagusia arautzeari dagokionez, ez da aldaketa handirik egin, gaur egun indarrean dagoen legediarekin alderatuta. Proiektuak sartzen dituen berrikuntzak deialdiaren iragarpenari dagozkio: webguneak, gaur egun asko erabiltzen diren bitartekoak diren aldetik, iragarpena egiteko baliozko bitarteko direla onartzen du. Gainera, berriaz aitortzen da gai-zerrendari dagokion dokumentazioa Batzarra bildu aurretik aztertze eskubidea dutela bazkide guztiek. Testua teknologia berrien arabera egokitzeko ildo horretan kontuan hartu da Batzarrean bideokonferentzia bidez parte hartze aukera, bai eta aukera hori baliozkoa izateko berriazko betekizunak ere.
- Gainera, Batzar Nagusiari buruzko Lehenengo Atalean, berrikuntza hau nabarmentzeko da: Batzar Nagusia hirugarren deialdian eratu ahal izango da, bazkideen gutxiengo kopururik gabe, hezkuntza-kooperatibetan. Halaber, hezkuntza-kooperatibetan bazkidearen ordezkari izan daiteke haren ezkontidea, familiako beste kideren bat (estatutuaren onartutako ahaidetasun-mailara arte) edo tutorea, jarduteko gaitasun osoz.

- Amaitzeko, 40. artikuluan, Batzar Nagusiaren erabakiak aurkaratzeari buruzkoan, zenbait berrikuntza sartu dira. Berrikuntza horien justifikazioa espedienteari dagokion memorian jasota dago, eta Kapital Sozietateen Legeak ezarritako araudi berria du oinarri.
- Bigarren Atalean, kooperatiba administratzeari eta ordezkatzeari buruzkoan, 42. artikulua berrikuntza hauek sartu ditu: (1) estatutuetan ezarri behar da administratzaileen gehieneko eta gutxieneko kopurua; (2) bazkideak ez diren Artekari Kontseiluko kideen kopurua handitzeko aukera, laurden bat edo heren bat izatera iritsi arte, estatutuek berariaz debekatzen ez badute; eta, (3) Artekari Kontseiluan plaza hutsak erdia baino gutxiago direnean, Artekari Kontseiluak berak zuzenean aukera ditzake kideak, eta izendapen hori balioduna izango da Batzar Nagusia bildu arte. Aldaketa horiek espedienteari dagokion memorian justifikatuta daude, profesionaltasuna eta Batzarraren funtzionamendua sustatze aldera. Ildo berean, 46.2 artikulua xedatzen duenez, idazkari-kargua har dezake kooperatibako bazkide edo kontseilari ez den norbaitek.
- Bestalde, 44. artikulua egungo araudia berritu du, honako hau xedatuta: administratzaile-karguaren ordainsaria (estatutuetan jasoz gero ordainsaria emango zaiola) kooperatibaren garrantziaren eta egoera ekonomikoaren arabera izango da, eta administratzaileek benetan emandako zerbitzuen arabera. Halaber, proiektuan 5. zenbakia erantsen zaio 45. artikuluari, Kontseiluko kide batek karguari uko eginez gero egin beharreko prozedura zehatz-mehatz jasotzeko. Horrez gainera, ondorioak ere jasota daude, justifikaziorik gabe kargua utzi duela irizitako kasuetarako.
- Artekari Kontseiluaren araudian jasota dagoenez, Batzar Nagusiaren kasuan bezala, bideokonferentzia bidez edo antzeko sistemaren bat baliatuta parte har dezakete kideak, eta parte-hartze hori balioduna izateko berariazko betekizunak zehaztuta daude.
- 48. artikulua, administratzaileen betebeharrak xedatzen dituenak, berrikuntza bat dakar, egungo Legearekin alderatuta; eta, txosten honen egilearen iritziz, azken paragrafoak ohar bat merezi du. Izan ere, paragrafo horretan xedatzen denez, administratzaileek norberaren edo besteren kontura egindako egintza, kontratu edo eragiketak, Batzar Nagusiak berariaz erabakitako baimenik gabe egin badira, eta kooperatibarekin egiatan lehiatzea badakarte, edo nolahi ere, haren interesekin etengabeko gatazka sortzen badute, deuseztatu ahal izango dira, fede oneko hirugarrengoei bereganatutako eskubideak galarazi gabe. Horiek horrela, txosten honen egilearen iritziz, norberaren izenean (beraz, kooperatibako bazkide izatearekin loturirik gabe) sozietatearekin zerikusirik ez duen hirugarren batekin egindako negozio horiek, ez dute harekiko berariazko betebeharrak. Horrenbestez, deuseztasun-erregimenak ez du geratu behar Batzar Nagusiak alde aurreko baimena ematearen mende. Nolanahi ere, kooperatibako administratzaileak norberaren izenean egindako jarduerak sozietatearen interesak kaltetu badituzte, karguduna izateagatik babestu behar dituen arren, horren erantzukizun ekonomikoak edo beste edonolakoak eskatuko zaizkio.

- 49. artikuluan, administratzaileen erantzukizunari buruzkoan, egin diren berrikuntzak 1. eta 4. zenbakietan jasota daude. Horrenbestez, lehenengoan doloa edo errua behar dela xedatzen bada ere, zilegi ez diren jokaera guztietan erru-presuntzioa gailentzen da; horrek frogaren zama alderantzikatzen du, eta administratzaileen gain jartzen du. Bestalde, 4. zenbakiak administratzaileen erantzukizuna zabalitzen du, praktikan, administratzaile-eginkizunak betetzen dituzten pertsoneri, eta kategoria horretan nor sartu behar diren adierazten du.
- 50. artikulua berrikuntza hau sartzeko, Kapital Sozietateei buruzko Legearen haritik: Batzar Nagusiaren esku jarri ahal izatea kooperatibak administratzaileen aurkako gizarte-erantzukizuneko ekintzak egikaritzea, puntu hori gai-zerrendan ageri ez bada ere. Sozietatearen interesaren alde, bazkideen % 20 osatzen dutenek ere hasi ahal izango dute erantzukizun-ekintza, baldin eta administratzaileek ez badute deitzen horretarako eskatutako Batzarra. Amaitzeko, leialtasun-betebeharra urratzearen ondorioak xedatzen dira; alegia, sozietatearen ondareari egindako kalteak ordaintzeaz gainera, bidegabe eskuratutako aberastasuna itzultzea.
- 51. artikulua ezabatzen du erabaki deusezen eta deuseztagarrien arteko ezberdintasuna, aurreko artikuluetan ere kendu baita sailkapen hori.
- Hirugarren Atalean, Zaintza Batzordeari buruzkoan, ezabatu egin da kooperatiban lan-kontratua duten langileak 50etik gora izanez gero langile horien ordezkari bat Batzordeko kide izateko betebeharra. Aukera hori estatutuetan aurreikusiko da.
- Atal honetako bigarren berrikuntza da 55.2 artikuluan xedatutako azterketa eta txostenak egiteko ahalmena, kooperatibak finantza-egoeren auditoriak egiteko betebeharra izanez gero.
- Laugarren Atalean Gizarte Kontseiluaren figura hedatzen da kooperatiba guztietara, eta ez indarrean dagoen arau bezala, 50 langile-bazkide edo lan-bazkideetik gora dituzten kooperatibetara soilik.
- VI. kapituluaren hasieran, ekonomia-araubideari buruzkoan, bi paragrafo erantsi zaizkio 58. artikuluari. Lehenengoak berriaz adierazten du kooperatibaren erantzukizuna; izan ere, kooperatibak erantzungo du sozietatearen zorrez, oraingo eta gero ondare guztiarekin, kooperatiba-heziketa eta -sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ekarpenari dagokiona alde batera utzita; kasu horretan helburu horiek betetzean sorturiko zorrez bakarrik erantzungo da. Bestalde, 58.4 artikulua bazkideen erantzukizun pertsonala xedatzen du, bai eta kooperatiba utzi ostean izango duena ere, kooperatibarekin sinatutako kontratu guztiengatik, haien izaera dela-eta, bazkide izateari utzi ondoren amaitzen ez diren kasuetan.
- 59. artikuluan, baltzu-kapitalari buruzkoan, berrikuntza hau soilik sartu da: bazkide ez diren hirugarren eskuratzaileek informazioa jasoko dutela bermatzen da.
- 64. artikuluari paragrafo bat erantsi zaio amaieran, estatuko Kooperatiben Legearen hirugarren xedapen gehigarrian adierazitakoa jasotzen duena.

- 65. artikuluan, ekarpenak itzultzeari buruzkoan, itzultzea dakarten bi kasu erantsi dira: Batzar Nagusiak baltzu-kapitala murrizteko erabakia hartzea, eta bazkidearen jarduera murriztea, bi kasuetan estatutuetan ezarritakoaren arabera itzuliko dira ekarpenak. Bestalde, 67. artikuluko azken hiru paragrafoak bateratu egin dira, eta paragrafo bakarra osatzen dute.
- 68. artikuluan, berriz, gaindikin garbiak kalkulatzeko kengarriak diren partidak zehaztean, kooperatibaren emaitzetan hirugarren tokian ageri da besteren konturako langileen parte-hartzea.
- 69. artikulua (orain indarrean dagoen 67. artikulua) hobeto idatzi da, eta gaur egun indarrean dagoen edukiari eusten dio.
- 72. artikuluan, berriz, aldaketa garrantzitsuak sartu dira, gaur egungo araudiarekin alderatuta, galerak egozteari dagokionez. Horrenbestez, kooperatibaren baltzu-kapitalaren % 50etik gorako erreserba egonez gero derrigorrezko erreserba-funtsari egotzi ahal zaizkion galerak zabaltzeaz gainera, bazkideei egotzi ahal izango zaizkien galerak ere zabaltzen dira, gutxienez egin behar dituzten zerbitzu edo eragiketak egitera iristen ez badira.
- Bestalde, eusten zaio gaur egun duen ahalmenari, galerak kontu berezi bati egozteko, etorkizuneko emaitza positiboekin amortizatze aldera; baina berariaz xedatzen da, bost urte igaro ostean, galera horiek kitatuko direla erreserba-funtsari eta bazkideei egotzita, eta hala ere ez badira galerak berdintzen, Batzar Nagusiak erabakiko dituen ekarpenak egingo dira, eta bazkideren baten ekarpenak geratzen badira estatutuetan ezarritako gutxienekoaren azpitik, eta ekarpen berri horiek egiten ez baditu, kooperatiba utzi beharko du. Hori guztia gorabehera, kooperatibak konkurtsoa bultzatu beharko du konkurtso-legearen arabera.
- VII. kapituluan, elkarte-agiriei eta kontularitzari buruzkoan, ez dira aldaketa handiak egin, honako hauek izan ezik: (1) kooperatibaren urteko kontuetan “ondare garbiaren aldaketen egoera”, eta hala badagokio, “efektibo-fluxuen egoera” sartzea; (2) kontu-auditoria eskatzen duten bazkideek auditoriak eragindako kostuak ordaindu beharko dituzte, kasu jakin batzuetan zenbateko horiek berreskuratzeko eskubidea galarazi gabe; betebeharrak, praktikan, bazkideek eskubide hori gauzatzea muga dezake; eta (3) Artezkaritza Kontseiluak eska dezake kontuen eta kudeaketa-txostenaren kanpoko auditoria.
- VIII. kapituluan, estatutuak aldatzeari buruzkoan, ez da aldaketarik egin, gaur egungo legea erreferentziazat hartuta.
- XI. kapituluan, kooperatiben bategiteari eta banatzeari buruzkoan, 82. eta 86. artikuluetan soilik egin dira aldaketak. 82. artikuluari jarraituz, Batzar Nagusiaren deialdian adierazi behar da bategite-proiektua Kooperatiben Erregistroan dagoela. Bestalde, 86. artikuluaen testu berriak bategite bereziak hedatzen ditu, sozietate zibilak, merkataritza-sozietateak zein edonolako erakundeak barnean hartuta, bai eta kooperatiba guztiak ere, kontrako lege-xedapenik egon ezean. Halaber, bestelako



erakunde batek kooperatiba bat xurgatu eta bat egiteko berariazko betekizuna da Kooperatiben Goren Kontseiluaren homologazioa.

- X. kapituluan, eraldaketari buruzkoan, hasierako 88. artikuluari beste paragrafo bat erantsi zaio. Bertan xedatuta dagoenari jarraituz, eraldaketa egiteko nahitaz egiaztatu behar da, Kooperatiben Erregistroan, kooperatibaren eta Kooperatiben Goren Kontseiluaren artean sinatutako akordioak betetzen duela 97.2 artikuluan xedatuta dagoena, baltzuaren ondasunak esleitzeari dagokionez. Gainera, 4. zenbakian zabaltzen ditu derrigorrezko erreserba-funtseko zuzkiduren eta borondatezko erreserba zatiezinen balio nominala egiaztatzeko moduak; horrenbestez, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak onartutako edozein ordaintzeko era erabil daiteke.
- XI. kapituluan, desegiteari eta kitapenari buruzkoan, 90. artikulua aldatu da. Horrenbestez, aipatu artikulua xedatzen du kooperatiba bat desegiteko kausa dela, besteak beste, konkurtso-prozeduran likidazio-fasea hasi izana; hartara bat dator uztailaren 9ko 22/2003 Legeak, Konkurtsoei buruzkoak, 145.3 artikuluan jasotako xedapenarekin. Izan ere, horri jarraituz, konkurtsopekoa pertsona juridikoa izanez gero, likidazio-fasea hastea dakarren ebazpen judizialak barnean hartuko du desegite-deklarazioa, lehendik erabakia egon ezean.
- Halaber, konkurtsoen araudiaren arabera egokitu da 91.5 artikulua. Horrenbestez, "porrota" aipatu ordez, likidazio-fasea hastea eragin duen konkurtso-prozedura aipatzen da; hartara bat dator uztailaren 9ko 22/2003 Legeak, Konkurtsoei buruzkoak, lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoarekin. Izan ere, xedapen horri jarraituz, aipatu legeak berariaz aldatu ez dituen legezko xedapenetan porrotari edo hartzekodunen konkurtsoari buruz egindako aipamen guztiak likidazio-fasea hastea eragin duen konkurtsoari buruzkoak direla ulertuko da.
- 93. artikulua ezabatzen du likidatzaileak kooperatibako bazkide izateko betekizuna. Hortaz, egoera hori lehentasun hutsa da, eta ez betebeharra.
- 95. artikuluan bi aldaketa sartu dira: alde batetik, lehenengo paragrafoko testua aldatu da, Batzar Nagusiaren eskuetan uzteko likidatzaileei aplikatuko zaien araubidea erabakitzea; eta bestetik, hirugarren paragrafoa, likidatzaileek ordainketa-etendura edo porrota deklaratzeko eskatzeari buruzkoa, ezabatu egin da.
- 98. artikulua testua luzatu egin da; izan ere, bertan jasota dago Batzarrak amaierako balantzea eta baltzuaren ondasunak banatzeko proiektua onartzea erabakiz gero, hori aurkaratzeko aukera duela laidotuta sentitzen den edozein bazkidek, bai eta hartzekodunek ere, haien kredituak ez badira ordaindu edo bermatu.
- Amaitzeko, 99. artikulua bidez, liburuak Kooperatiben Erregistrora eramateko betebeharraren ordez, likidatzaileek sei urtez gorde behar izatea xedatzen da, eta 100. artikulua testua egokitu da, konkurtsoei buruzko legediaren arabera.
- II. tituluak, erabaki bereziei buruzkoak, kooperatiba motak arautzen ditu.



### **LANKIDE-KOOPERATIBAK**

- Lankide-kooperatibetan honako xehetasun hauek sartu dira: (1) bazkide langileak lanaldi mugatuan edo lanaldi osoan egin dezake lan; (2) bazkide langileak kooperatibarekin duen harremana sozietarioa da; (3) besteren konturako lan-kontratuen bidez urtean egindako lanorduen kopurua ezingo da izan bazkide langileek urtean guztira egindako lanorduen % 30 baino handiagoa (gaur egun ezin da izan % 25 baino handiagoa); (4) aipatutako % 30 hori kalkulatzeko urtean zenbatzen ez diren lanorduen kasuak zabaldu dira; (5) lan-kontratu mugagabea duten langileek bazkide langile gisa onartuak izateko duten eskubidea mugatzen da langile kontratatuen gehieneko muga gainditu den kasuetara; (6) estatutuetan ezar daiteke kooperatibaren betebeharrak dela langile autonomoen parekoak diren bazkide langileen Gizarte Segurantzako ordainketak bere gain hartzea; eta (7) 106. artikuluan jasota dagoenari jarraituz, Batzar Nagusia egiteko premia adierazten denean, behar bezala justifikatu behar da.

### **KONTSUMO-KOOPERATIBAK**

- Ez da aldaketarik egin, gaur egungo araudia erreferentziatzen hartuta.

### **IRAKASKUNTZA-KOOPERATIBAK**

- Araudi berezian egin den berrikuntza bakarra da proiektuko 35.2 artikulura berariaz egiten den igorpena. Artikulu hori aipatu da jada txosten honetan.

### **NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN KOOPERATIBAK**

- 112. artikulua aldatu da, helburu hauekin: alde batetik, nekazaritzako elikagaien kooperatiba horien xedea gehiago zehaztea; eta bestetik, berariaz zehaztea bazkideak pertsona fisikoak ez den kasua. Lege-proiektuan kasu hori "titulartasun partekatua duen erakunde" gisa ageri da. Erakunde horrek boto bakarra izango du, eta pertsona fisiko bat izendatu beharko du, eginkizunak bete ditzan, kooperatibako administratzaile izan behar badu.
- Amaitzeko, 113. artikuluan, handitzen da hirugarrenekin egiten diren eragiketetan kooperatibaren edo bazkideen ustategietakoak ez diren nekazaritzako produktuen gehieneko portzentajea.

### **ERKIDEGOAN USTIATZEKO KOOPERATIBAK**

- Atal honetan ezabatzen da, Gizarte Segurantzako ondorioetarako, bazkide langileak eta besteren konturako langileak automatikoki parekatzea.

### ETXEBIZITZA-KOOPERATIBAK

- Etxebizitza-kooperatiben kasuan, proiektuak zenbait berrikuntza sartzen ditu, gaur egun indarrean dagoen legediari dagokionez. Lehenengo betekizuna da kooperatibak berak zuzenean garatu behar duela sozietatearen helburua, oinarriko arloetan bederen. Hala ere, kontratatutako hirugarrenek nolabait erraz edo osa dezakete jarduera hori; baina, horretarako, kooperatibako letradu aholkulariak kontratu horien aldeko txostena egin behar du.
- Bigarrenik, kooperatibaren beharrak estali ondoren, bazkide ez diren hirugarrenei instalazioak eta eraikinak saltzeko edo errentan emateko erabakia Batzar Nagusiak hartu beharrekoa da.
- Hirugarrenik, bazkide ez diren hirugarrenei kooperatibak besterendu ahal izango dizkie sustatzen dituen etxebizitzak, baldin eta kooperatiba-sustapena finantzatzeko beharrezkoa izanez gero. Halakoetan, bazkide ez diren hirugarrenekin egindako eragiketak, gehienez ere, bazkideei egindako esleipenen ehuneko % 40 izango dira, eta Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak homologatu beharko ditu.
- 118. artikulua estreinaok arautzen du etxebizitza eskualdatzeko araubidea, bai eta kooperatiba desgiteko baldintzak ere, higiezinak esleitu ostean.
- 119. artikuluan, bazkideen araubideak nabarmen zabaltzen du gaur egungo edukia. Oro har, bazkideen % 50, gutxienez, etxebizitzaren hartzaile izan behar du, eta letradu aholkulariak aldeko irizpena eman behar du, bazkide izateko baldintzak betetzeari dagokionez.
- Gainera, esleipendunek kontura emandako zenbatekoak eta etxebizitza esleitu aurretik kooperatiba uzten duten bazkideen betebeharrak bermatuko dituen aseguruak kontratatzeko betebeharra xedatzen du.
- Bazkideen erantzukizunari dagokionez, proiektuak adierazten du mankomunatu sinplea dela. Alabaina, txosten honen egilearen iritziz, Kode Zibilak betebeharrak mankomunatuak eta betebeharrak solidarioak soilik bereizten dituenaz, zehaztu beharko litzateke zer adierazi nahi den mankomunatu sinplea dela esaten denean, aplikazio praktikoan interpretazio-arazoak ez sortzeko.
- 120. artikulua bidez sartu da ahalordetzeko aukera, hari dagozkion mugak, eta Kooperatiben Erregistroan inskribatu behar dela, letradu aholkulariak aldeko irizpena eman ondoren. Letradu aholkularia izendatzea nahitaezkoa da honelako kooperatibetan, 121. artikuluan xedatuta dagoenari jarraituz. Gainera, artikulua horretan zehaztuta dago zer erabaki hartzeko behar den nahitaez letradu aholkulariaren irizpena.

- 122. artikuluan, babes ofizialeko etxebizitzetarako buruzkoan, berariaz adierazten da haien araudi bereziaren arabera izan beharko dutela, bai sustatzeko, bai eskualdatzeko.

#### **FINANTZA-KOOPERATIBAK**

- Gaur egungo araudiari eusten zaio.

#### **OSASUN-KOOPERATIBAK**

- Gaur egungo araudiari eusten zaio.

#### **ZERBITZU-KOOPERATIBAK**

- 10. atalean beste artikulua sartu da, garraio-kooperatibetarako buruzkoa. Haien barruan bereizten dira, alde batetik, garraio-zerbitzuak ematen dituztenak, eta bestetik, bazkideen enpresa-jarduera errazten dutenak; azken horietarako garraiolari-kooperatiba esaten zaie.
- Halaber, kooperatiben beste kategoria bat xedatu da: gazteen kooperatibak, ikasleentzat eginak, eta matrikulatuta dauden ikastetxean ikasi dituzten ezagutzak praktikan aplikatzea dute helburu.

#### **GIZARTERATZEKO ETA LANERATZEKO KOOPERATIBAK**

- Berariazko artikulua sortu da laneratzeko kooperatibentzat, eta bai haietan, bai gizarteratzeko kooperatibetan berariazko izaera hori ematen dieten kolektiboekin kontratuak egiteko aukera xedatu da. Halaber, ez zaie aplikatuko 102.4 artikulua lehenengo paragrafoan xedatutako % 30eko muga.

## **II. KAPITULUA**

### **KOOPERATIBA INTEGRATZEA ETA TALDEKATZEA**

#### **BIGARREN MAILAKO EDO MAILA HANDIAGOKO KOOPERATIBAK**

- Gaur egungo araudiari eusten zaio.

### **EKONOMIA-LANKIDETZARAKO BESTE MODALITATE BATZUK**

- Atal honetan kooperatiba-korporazioei buruzko artikulua ezabatu da, eta kooperatiba taldeen araudia zabaldu da, bi talde mota bereizita (integrazio bidezkoak eta lankidetzazkoak) eta haien betekizunak zehaztuta.
- Bestalde, 144. artikuluan beste bi paragrafo sartu dira. Espedienteari dagokion memorian adierazitakoari jarraituz, paragrafo horien helburua da deskooperatibizazio-arriskua saihestea eta bazkideen araubidea ezartzea.

### **III. TITULUA: KOOPERATIBAK ETA ADMINISTRAZIOA**

- 145. artikuluan, gizarte-interesari eta onura publikoari buruzkoan, zenbait berrikuntza sartu dira, indarrean dagoen arauari dagokionez: (1) agintaritzazko publikoek Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa aitortzen dute, gizarte-eragile gisa, (2) xedatu da agintaritzazko publikoek kooperatiben parte-hartzea sustatuko dutela zerbitzu publikoen kudeaketan, (3) Eusko Jaurlaritzak onura publikoa aitortu dien kooperatiben eskubideak zehaztu dira, eta (4) ezarri da agintaritzazko publikoek xeda dezaketela zerbitzu publikoak zuzenean emango direla, zerbitzu publikoen kooperatiba-sozietateak eratuta (145.4 artikulua).
- Txosten honen egilearen iritziz, “zerbitzu publikoko kooperatiba-sozietateak” zerbitzu publikoak zuzenean emateari dagokionez, “zerbitzu publikoko kooperatiba-sozietateak” esaten zaion erakunde horren definizioa eta araubide juridikoa guztiz zehaztuta utzi behar da, aplikatu behar den araudian nola txertatzen den aztertzeko, bai kontratazioen arloan, bai zerbitzu publikoak emateko arloan.
- Amaitzeko, 146.10 artikulua bidez xedatzen da EAEko Administrazio publikoak bultzatuko duela kontratazio publikoen prozeduretan kooperatibek parte hartzea. Horri buruz, adierazi behar da aurreikuspen horiek egokitu beharko direla azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duenak, ezarritakoaren arabera.
- Bestalde, berriaz aipatu behar da 147. artikuluan egindako aldaketa. Xedapen horren bidez, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluari dagokio ikuskaritza-funtzioak betetzea lege hori garatzeko; hala ere, Eusko Jaurlaritzako sailek edota beste administrazio publiko batzuek ere funtzio horiek bete ahal izango dituzte, nor bere eskumenen arabera. Horri dagokionez, txosten honen egilearen iritziz, testu berriaren irismena eta interpretazioa zehaztu beharko liriteke, gaur egungo eskumenen araubidean nola txerta daitekeen aztertzeko.
- Arau-hausteen tipifikazioan ere aldaketak egin dira, gaur egungo araudiari dagokionez; esate baterako, lege ezarritako mugak gainditzen dituen besteren konturako langileen kontratazioak arau-hauste oso larria izateari uzten dio, eta arau-hauste larria da.

- Bestalde, zehapenak eguneratu dira, eta irizpide berriak sartu, mailaren arabera egokitzeko.
- 150. artikuluan, kooperatiba deskalifikatzeari buruzkoan, horretarako kausen zerrendan sartu da elkarren segidako hiru urtetik gora jarduerarik gabe egon izana. Halaber, gaur egungo legediarekin alderatuta, aurreikusi den berrikuntza bat da kooperatiba batek deskalifikazioa dakarren jokabidea izanez gero, Kooperatiben Goren Kontseilua horren jakitun bada, galdatzeko aukera izango duela.
- Amaitzeko, 151. artikulua, kooperatibetan aldi batez esku hartzeari buruzkoak berrikuntza hauek dakartza: lehenik eta behin, Kooperatiben Goren Kontseiluaren legitimazioa, esku-hartzea eskatzeko; eta bigarrenik, gaur egun Gizarte Ekonomiako zuzendariak aldi batez esku hartzeko neurriak erabakitzeke duen eskumena sailburu eskudunaren eskuetan jartzea.

#### **IV. TITULUA: KOOPERATIBA-ELKARTEAK**

- I. tituluak, kooperatiba-elkarteei buruzkoak ematen duen aukeraren bidez, Euskadiko mota desberdinetako kooperatiben federazioek bategiteko aukera dute, kooperatiba mota desberdinen ordezkari izango diren federazioak sortzeko.
- Amaitzeko, II. kapitulua Kooperatiben Goren Kontseiluari buruzkoa da. Kontsultarako erakunde publikoa da, eta arlo horretan egin den berrikuntza adierazgarriena da kooperatiben ordezkariak gehiengo izatetik % 50 izatera igaro direla.

#### **XEDAPEN GEHIGARRIAK**

- Bigarren eta hirugarren xedapen gehigarriak aldatu dira, eta bosgarrena erantsi da. Bigarrenak baztertzen du legea indarrean sartzean jada ezarrita dauden garraiolarien lankide-kooperatibak uzten dituzten bazkide langileek ekarpenak dirutan itzultzea. Hirugarrenak, berriz, xedatzen du Eusko Jaurlaritzak urteko planak egingo dituela, berriaz kooperatiben alorreko enplegua sortzeko. Amaitzeko, bosgarren xedapen gehigarriak xedatzen du kooperatibek beren organoetan gizonen eta emakumeen presentzia orekatua izateko ahaleginak egiteko betebeharra dutela.

#### **XEDAPEN IRAGANKORRAK**

- Lehenengoari eta bigarrenari eutsi zaie, gainerakoak ezabatu dira.

#### **XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA**

- Gaur egungo Kooperatiben Legea indargabetzen du, bai eta ekainaren 25eko 6/2008 Legeak, Euskadiko Kooperatiba Sozietate Txikiei buruzkoak, 5.3. artikuluan adierazitakoa ere. Honako hau dio: aurreko puntuetan jasotako kasuetan, eratu ondorengo bost urteak igaro ostean, kooperatiba-sozietate txikiek Gizarte Ekonomiako Zuzendaritzari jakinarazi eta egiaztatu beharko diote, erregelamendu bidez erabakiko den moduan, ekainaren 24ko 4/1993 Legeak, Euskadiko Kooperatibenak, gai horri buruz ezarritako betekizunak erregularizatuta daudela.

### AZKEN XEDAPENAK

- Azken xedapenetan egindako berrikuntza bakarra da Gobernuak onartu behar dituela ikuskaritza-funtzioa garatzeko erregelamenduak eta zehapen kooperatiborako prozedura.

### 3.- IZAPIDEAK

Gobernu Kontseiluaren 2010eko abenduaren 28ko eta 2012ko azaroaren 27ko erabakiak, Xedapen Orokorrak Izapidetzeko Jarraibideak onartzen dituztenak, xedatutakoaren arabera, eta elektronikoki izapidetzeko jarraibideak kontuan hartuta, ekimen hau izapidetzeko, Lankidetzaren Juridikorako sareko espazioa (LEGESAREA) erabiltzeaz gainera, arau-xedapen orokorren izapide elektronikotarako garatutako aplikazio informatikoa erabili da (TRAMITAGUNE).

Espedientean XOEPLren aurreikusitako eskakizunak bete dira, jarraian azalduko denez.

#### 3.1.- HASIERA EMATEKO ETA ALDEZ AURRETIK ONARTZEKO AGINDUAK

- Agindua, 2015eko apirilaren 29koa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena, aurreproiektua egiteko prozedura hastea erabakitzen duena.

Prozedura hasteko aginduak, 5 artikulua xedatzen duenari jarraituz, egitekoa den arauaren xedea eta helburua aipatzen ditu labur-labur, eta alderdi hauen guztien gaineko irizpen bat ere jasotzen du: arauaren bideragarritasun juridiko eta materiala; antolamendu juridikoan izango duen eragina, gai berari buruz indarrean dauden beste arauen artean berariaz edo zeharka zein aldatuko dituen adierazita; eta arau horrek administrazio publikoan aurrekontuetan izango duen eragina, arautuko duen gai horretan, eta, hala balegokio, dagokion jarduera-sektorean izango duena.

Orobat, hasteko aginduak egoki iritzitako izapide eta txostenak zehazten ditu, gaia kontuan hartuta, bai eta proposatutako araudiaren edukia ere, eta xedapenak Europar Batasunaren izapiderik ez duela igaro behar irizten dio.

Aginduan beharrezkotzat jotzen dira izapide eta txosten hauek:

○ **Justifikazio-memoria.**

1993ko apirilaren 6ko Aginduan ezarritakoari jarraituz, arauari buruzko azterketa zabal bat egiten da justifikazio-memorian. Zioen adierazpenean jasota dauden kontuez aparte, erantzuna eman beharreko egoera edo fenomenoak kontuan hartu behar da, dauden alternatiba ezberdinak gogoraraziz, haren aldeko proposamena egiten deneko arrazoiak azalduz eta proposamenaren gai den xedapenak antolaketa edota finantza mailan izango duen eraginaren aurre-estimazioa eginez. Azken hori erakunde berriren bat sortzeko, bereziki. Espedientean jasota dago justifikazio-memoria; arauaren inpaktuaren analisiari buruzko memoria, alegia.

○ **Memoria ekonomikoa.**

XOEPLren 10.3 artikuluan ezarrita dagoenaren arabera, espedientean memoria ekonomikoa jaso beharko da. Memoria horrek bete beharko du, gutxienez, urriaren 31ko 464/1995 Dekretuaren 42. artikuluan xedatuta dagoena. Horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dira. Dagokion memoria ekonomikoa espedientean jasota dago.

○ **Lege-proiektua egitea.**

Espedientean jasota dago txosten honek aztergai hartutako lege-proiektua, euskaraz eta gaztelaniaz.

○ **Aldez aurretik onartzea.**

2013ko maiatzaren 14ko Gobernu Kontseiluan hartutako erabakiari jarraituz, xedapen orokorren proiektuak, bi hizkuntzetan idatzi ostean, 8/2003 Legearen 5. artikuluan jasotako hasteko aginduan ezarritako teknikaren arabera, hasteko agindua eman zuen organoak aldez aurretik onartu behar du, 7. artikuluan xedatutakoaren arabera, egoki diren negoziazio-, audientzia eta kontsultazapideak egin aurretik, eta testu elebidun osoa kontuan hartuta egingo dira izapideak. Halaber, testu elebidun osoa bidaliko da, derrigorrezko txosten eta irizpenak eskatzeko izapideen hurrengo faseetan.

Horretarako, espedientean sartu da 2015eko irailaren 29ko Agindua, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuaren aldez aurreko onarpena.

Kasu honetan ez dira beharrezkoak XOEPLren 7.2 artikuluan aurreikusitako **negoziazio-izapideak**, bertan ezartzen diren kasuetako bat ez delako.

○ **Entzunaldia eta jendaurreko informazioa.**

XOEPLren 8 artikuluan xedatuaren arabera, herritarren eskubideei eta bidezko interesiei eragiten dieten xedapen orokorrek entzunaldiaren izapidea igaro beharko dute. Interesdunei zuzenean entzunez egingo da entzunaldia, edo, interesdun horiek biltzen edo ordezkatzan dituzten erakunde eta elkarteei entzunez; erakunde eta elkarte horien helburuek lotura zuzena izan behar dute xedapenaren gaiarekin. Horretarako,



entzunaldia emango zaio Euskadiko Kooperatiben Konfederazioari.

Kasu honetan ez dira beharrezkoak XOEPLren 7.2 artikuluan aurreikusitako **negoziazio-izapideak**, bertan ezartzen diren kasuetako bat ez delako.

- Proposatutako arauaren eragina izan dezaketen **Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuei eta erakunde instituzionalei kontsulta** egitea.
- **Parte-hartzeko eta kontsulta egiteko** izapidea hiru foru-aldundiei eta EUDELi.
- **Generoaren arabera inaktuaren alde aurreko ebaluazio-txostena**, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeko 19. artikuluan eta Gobernu Kontseiluaren 2012ko abuztuaren 21eko akordioan jasotako xedapenen arabera.

Espedientean jasota dago txostena.

- Emakunde – Emakumearen Euskal Erakundearen txostena, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeko 21. artikulua arabera egina.

- **Enpresaren gaineko eraginari buruzko txostena.**

Horri dagokionez, Euskadiko ekintzaileei eta enpresa txikiari laguntzeko ekainaren 28ko 16/2012 Legearen 6. artikulua arabera, **enpresak sortzeak, abian jartzeak eta haien funtzionamenduak izango duen inaktuaren ebaluazioa** erantsi behar zaio espedienteari. Espedientean jasota dago txostena.

- Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko **Zerbitzu Zuzendaritzak** egindako txosten juridikoa.

Horretarako egin da txosten hau.

- Kultura Saileko **Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzak** egindako txostena.

- **Kooperatiben Goren Kontseiluaren txostena.**

Ekainaren 24ko 4/1993 Legeak, Euskadiko Kooperatibenak, 145. artikuluan ezarritakoaren arabera, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren eginkizuna da, besteak beste, kooperatibetan edo haien erakundeetan eragin zuzena duten legezko xedapenen eta erregelamenduen proiektuei buruzko nahitaezko txostenak egitea, bai eta haren eskumeneko gaien buruzko azterlan eta proposamenak egitea eta irizpenak ematea ere.

- **Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen txostena.**

Maiatzaren 17ko 8/2012 Legeak, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearenak, 3. artikuluan ezarritakoaren arabera, erakunde horri dagokio politika ekonomiko eta sozialarekin lotuta dauden proiektu guztiei buruzko nahitaezko txostena egitea.

○ **Arauen kontrol ekonomikoari buruzko txostena.**

Proiektua Kontrol Ekonomikoko Bulegoari igorri behar zaio, eta txostena egingo du, ekainaren 30eko 14/1994 Legearen bidez (urriaren 31ko 464/1995 Dekretuaren bidez garatua) esleitu zitzaizkion eskumenak egikaritzuz.

○ Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena.

Era berean, **Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak** irizpena eman behar du, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 3.1.c artikulua aplikatuz. Gero, Gobernu Kontseiluari igorri behar zaio, onets dezan.

Irizpen horren ondorioz **testua aldatzen bada**, aldaketa horiek **Kontrol Ekonomikoko Bulegoari** jakinarazi behar zaizkio, 14/1994 Legearen 27.1 artikulua betetzeko, 9/2004 Legearen azken xedapenean jasotako idatzaldiaren arabera, eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren 2005eko urriaren 14ko 2/05 zirkularrean ezarritakoari jarraituz.

○ Araua jasoko duen **testu elebiduna** idazteko metodoa.

**Idazteko sistemari** dagokionez, azaroaren 24ko 10/1982 Legeak, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzko Legeak, 8.1 artikuluan ezarritakoa betetzeko, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko IZO – Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak itzuliko du proiektua, apirilaren 3ko 48/2012 Dekretuan ezarritakoari jarraituz.

### 3.2.- BESTE IZAPIDE BATZUK

Azaldutako prozedura amaitu ostean, 8/2003 Legeak ezarritakoari jarraituz, xedapen orokorra organo eskudunari helaraziko zaio, onets dezan. Xedapenarekin batera, zioen azalpena emango zaio, xedapena egitea bultzatu duten zioak eta lortu nahi den helburua labur-labur jasota, eta erantsiko zaio, egoki izanez gero, indargabetu edo aldatu diren xedapenen zerrenda.

Halaber, egin diren nahitaezko txostenak erantsiko zaizkio, eta 10. artikuluan aurreikusitako memoriak, bai eta xedapenaren premiari eta egokitasunari buruz erabakitzeke behar diren aurrekariak ere.

Lege-aurreproiektuak Gobernu Kontseiluari aurkeztuko zaizkio, azter ditzan; aztertzen diren bilkuran bertan erabakiko du haiek behin betiko onartu edo ez, edo, bestela, azken idazkera

egiteko kontuan hartu beharko diren irizpideak ezarriko ditu, bai eta, hala balegokio, behin betiko onartu bitarteko bidean egin beharreko jarduketak ere.

#### **4.- ONDORIOA**

Haxe da nire irizpena, zuzenbidean hobeto oinarrituriko beste edozeinen mende jartzen dudana.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko urriaren 2a.

Sin.: Garbiñe Parada Vizcaino  
ZERBITZU ZUZENDARITZA